



SINATZAILEA

EGINBIDEA konstatzeko deialdi honen oinarriak
Arantzako Udalaren 2026ko irailaren 10eko osoko
bilkura akordio bidez onetsiak izan direla.
IDAZKARIA, Nagore Madariaga Iriarte
2026/09/11



ARANTZAKO
UDALA

NIF: P3102200G

KIROLA ETA GAZTERIA

Espedientea 339951E

2026. URTEAN BORTZIRIETAKO UDAL IGERILEKUETAKO BONOAK ORDAINTZEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA

SARRERA

Arantzako Udalak, Bortzirietako bertze udal batzuekin alderatuta, ez du udal igerilekurik. Hori dela eta, Arantzako bizilagunek bertze udalerri batzuetara jo beharra dute udan igerilekuetako instalazioez gozatu nahi badute.

ONARRIAK

1. XEDEA.

Dirulaguntzaren xedea Arantzan erroldatutakoei Bortzirietako bertze igerileku publikoetako uda aldiko bonoak ordaintzean sortutako gastuaren zati bat finantzatzen laguntzea da.

2. DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA. AURREKONTU KONTSIGNAZIOA.

2.1. Arantzako Udalak 2026. urteko aurrekontuan "IGERILEKUETAKO DIRULAGUNTZA 1 3420 4890002" izeneko partidaren kargura finantzako ditu dirulaguntza hauek.

2.2. Dirulaguntzaren zenbatekoa aurkeztutako eskabide kopuruaren arabera zatituko da. Modu proportzionalean lagunduko dira bonoak, aurkeztutako gastu guztien batura kontutan hartuta, partidan adierazitako zenbateko guztia estali arte.

3. PERTSONA ONURADUNEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK.

Deialdi honetako dirulaguntzak jaso nahi dituzten pertsonak baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Pertsona fisikoa izatea.
- Arantzan erroldatua egotea.
- Bonoa Bortzirietako igerileku publiko batean egina izatea uda aldirako. Horri dagokionez, ekainetik irailera bitarteko hilabeteak hartuko dira kontuan udako alditzat.
- Eskatzen den dokumentazioa ezarritako epean aurkeztea.

4. ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA.

Eskabideak Arantzako Udal Erregistroan aurkeztu beharko dira erregistro elektroniko bidez (<https://sedeelectronica.arantza.eus>) edo fisikoki udal bulegoko erregistroan, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 20 egun balioduneko epean.

Zentzu horretan, ez dira kontuan hartuko posta elektronikoz aurkeztutako eskabideak, aitzineko paragrafoan adierazitako modua baita baliozkotzat hartuko den modu bakarra.

Interesatu bakoitzeko eskabide orri bat bete beharko da (I.Eranskina).



ARANTZA

Egiaztapen-aseguru kodea: 7CAA AAUF H7EH WU4Z 2ZAM

2026 URTEKO BORTZIRIETAKO IGERILEKUETAKO BONOAK ORDAINTZEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA - SEFYCU 380055

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.arantza.eus/> 6tik 1 orrialdea



SINATZAILEA

EGINBIDEA konstatzeko deialdi honen oinarriak
Arantzako Udaleren 2026ko irailaren 10eko osoko
bilkura akordio bidez onetsiak izan direla.
IDAZKARIA, Nagore Madariaga Iriarte
2026/09/11



ARANTZAKO
UDALA

NIF: P3102200G

KIROLA ETA GAZTERIA

Espedientea 339951E

5. ESKABIDEEKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

Eskabideekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskabide-orria. Deialdi honetako I. eranskinean dagoena.
Adin txikikoen kasuan, eskatzaile gisa honen guraso edo legezko tutorea agertuko da eta adin txikikoaren datuan eskabidean horretarako adierazitako zatian azaldu beharko dira.
- Bortzirietako igerileku publiko batean egindako bonoa, jatorrizkoa edo kopia.
- Bonoaren kostua ordaindu izanaren ordainagiria.

6. EBALUAZIO BATZORDEA.

Aurkeztutako eskaerak ebaluatzeko Arantzako Udaleko ordezkari, administrari ofizial eta idazkari-kontuhartzaileak osatutako batzorde baten bidez egingen da.

7. BALORAZIO IRIZPIDEAK.

Ebaluazio batzordeak alderdi hauek hartuko ditu kontuan:

- Eskabideak behar bezala beteta daudela.
- Bonoa jatorrizkoa dela edo kopia dela.
- Eskatzailea Arantzako Udal padroian errolatuta dagoela.
- Ordainagirian adierazitako ordainketa kopurua bonoa egin den igerileku publikoko tarifarekin bat datorrela.

Ebaluazio batzordeak akatsak daudela edo agiriren bat falta dela antzematen badu, eskabidea eta oinarri hauetako I. eranskinean eskatutako ondoan, hala jakinaraziko zaio eskatzaileari, eta hamar egun balioduneko epea emanen zaio, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita, akatsak zuzen ditzan. Epea iragaten bada akatsak zuzendu gabe, eskaerari uko egin diola ulertuko da, aitzinetik ebazpena emanda, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urruaren 1eko 39/2015 Legearen 21. eta 68.1. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

8. DIRULAGUNTZAREN BANAKETA.

8.1. Dirulaguntza deialdi honetara aurkeztutako eskaeren gastu kopuru guztia hartuko du kontuan.

8.2. "IGERILEKUETAKO DIRULAGUNTZA 1 3420 4890003" partida 1.428,58 eurokoa dela jakinik, eskaeren gastu kopuru guztia partidaren zenbatekoaren batz bertzekoa den ikusiko da. Horrela bada:

Eskaera guztien batura → X
Portzentajea → Y

$$Y = \frac{X * 100}{1.428,58}$$



ARANTZA

Egiaztapen-aseguru kodea: 7CAA AAUF H7EH WU4Z 2ZAM

2026 URTEKO BORTZIRIETAKO IGERILEKUETAKO BONOAK ORDAINTZEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA - SEFYCU 380055

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.arantza.eus/> 6tik 2 orrialdea



SINATZAILEA

EGINBIDEA konstatzeko deialdi honen oinarriak
Arantzako Udaleren 2026ko irailaren 10eko osoko
bilkura akordio bidez onetsiak izan direla.
IDAZKARIA, Nagore Madariaga Iriarte
2026/09/11

ARANTZAKO
UDALA

NIF: P3102200G

KIROLA ETA GAZTERIA

Espedientea 339951E

8.3. Aurrekoa kontutan izanik, eskaera bakoitzaren kopurua ondorengo formula aplikatuko zaio bakoitzak zenbateko dirulaguntza jasoko duen kalkulatzeko:

Eskaera bakoitza → X
Portzentajea (aitzinekoaren emaitza) → Y
Dirulaguntza kopurua → Z

$$Z = \frac{X * 100}{Y}$$

9. DIRULAGUNTZA EMATEKO EBAZPENA.

9.1. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, bi hilabeteko epean, Arantzako Udaleko Alkate Ebazpen bidez emanen dira dirulaguntzak bakoitzari emandako zenbatekoak adieraziz.

9.2. Ekitaldi ekonomiko zehatz baten kontura dirulaguntza bat jasotzeak ez dakar inolako eskubiderik hurrengo urteetan dirulaguntzak jasotzeko.

9.3. Dirulaguntza emanda, onartutzat joko da, espresuki uko egiten ez bazaio. Bertzela, ulertuko da onartu dela emandako zenbatekoa.

10. BERTZE DIRULAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA.

Dirulaguntzak bateragarriak izanen dira bertze edozein administrazio, erakunde publiko eta pribatuk edo pertsonak helburu bererako emandako bertze dirulaguntza batzuk jasotzearekin; hala ere, dirulaguntzen zenbateko osoa ezin izanen da inola ere izan diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Dirulaguntzen baturak gastua gainditzen badu, dirulaguntzaren esleipena birformulatu egingen da, lortutako gehiegizko diru-sarreraren proportzioan murriztuz.

11. DATUEN BABESA.

Datu Pertsonalak Babesteko Arautegia beterik, Arantzako Udala da datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna. Eskatzaileen datu pertsonalak Arantzako Udalaren fitxategietan jasoko dira eskatutako zerbitzuak kudeatzeko eta udalaren berezko eginkizun legalak burutzeko. Interesdunak kontrakorik adierazten ez badu, udalak datuak epe zehatzik gabe gorde ahalko ditu.

Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, ez bada zerbitzua gauzatzeko beharrezkoa delako edo/eta legediak horrela agintzen duelako.

Eskatzaileak, eskaera izenpetzen duen unetik onespina eta baimen zehatza ematen du, adierazitako helburuen baitan, bere datuak tratatzeko eta komunikatzeko. Bere esku dago sarbide, zuzenketa, ezeztapen eta aurkaritza eskubideak erabiltzea. Era berean, emandako baimena edonoiz ezeztatzen ahal du, baita gai honi buruzko bertze eskariren bat egin ere. Horretarako Arantzako Udalera jo beharko du, helbide honetara: Arantzako Udala, Herriko Plaza 7, 31790 Arantza (Nafarroa) edo posta elektronikoa honen bitartez: idazkari@arantza.eus. Eskatzaileak, eskariari emandako erabakiarekin ados ez badago edo



ARANTZA

Egiaztapen-aseguru kodea: 7CAA AAUF H7EH WU4Z 2ZAM

2026 URTEKO BORTZIRIETAKO IGERILEKUETAKO BONOAK ORDAINTZEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA - SEFYCU 380055

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.arantza.eus/> 6tik 3 orrialdea



SINATZAILEA

EGINBIDEA konstatzeko deialdi honen oinarriak
Arantzako Udaleren 2026ko irailaren 10eko osoko
bilkura akordio bidez onetsiak izan direla.
IDAZKARIA, Nagore Madariaga Iriarte
2026/09/11



ARANTZAKO
UDALA

NIF: P3102200G

KIROLA ETA GAZTERIA

Espedientea 339951E

errekamazio bat jarri nahi badu, kontrol aginte eskudunera jotzen ahal du, kasu honetan, Datuak Babesteko Bulegoa (www.agpd.es).

12. ARAUDI APLIKAGARRIA.

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
- Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.
- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea.
- Arantzako 2023ko Aurrekontuaren Exekuzio Oinarriak.

13. ERREKURTSOAK.

Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen aurka eta haiek betearazteko hartzen diren administrazio ebazpenen aurka ere, errekurtsio hauetako edozein aurkezten ahalko da, aukeran:

- Berraztertzeke errekurtsioa, administrazio egintzaren udal organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, administrazioarekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.



ARANTZA

Egiaztapen-aseguru kodea: 7CAA AAUF H7EH WU4Z 2ZAM

2026 URTEKO BORTZIRIETAKO IGERILEKUETAKO BONOAK ORDAINTZEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA - SEFYCU 380055

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.arantza.eus/> 6tik 4 orrialdea



SINATZAILEA
EGINBIDEA konstatzeko deialdi honen oinarriak
Arantzako Udaleren 2026ko irailaren 10eko osoko
bilkura akordio bidez onetsiak izan direla.
IDAZKARIA, Nagore Madariaga Iriarte
2026/09/11



ARANTZAKO
UDALA

NIF: P3102200G

KIROLA ETA GAZTERIA

Espedientea 339951E

I. ERANSKINA

-ESKABIDEA-

(Interesatu bakoitzeko eranskin bat aurkeztu beharra da)

ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK:

IZENA	
ABIZENAK	
NAN ZK.	
HELBIDEA	
TELEFONO ZK.	
HELBIDE ELEKTRONIKOA	

ADIN TXIKIKOEAN KASUAN, aitzineko puntuan adierazitako pertsona honako honen guraso edo legezko tutorea da eta, hori horrela izanik, honako honen izenean dirulaguntza hau eskatzen dut:

IZENA	
ABIZENAK	
NAN ZK.	
HELBIDEA	
TELEFONO ZK.	
HELBIDE ELEKTRONIKOA	

BONUAREN DATUAK:

NONGOA (markatu dagokiona)	☐ BERA	☐ ETXALAR	☐ IGANTZI	☐ LESAKA
ZENBATEKOA (adierazi kostu kopurua)*				

*Bonoagatik ordaindutako kopuru zehatza idatzi.

AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA:

- ☐ Bortzirietako igerileku publiko batean egindako bonoa, jatorrizkoa edo kopia.
- ☐ Bonoaren kostua ordaindu izanaren ordainagiria.

ORDAINKETA DATUAK (adierazi ordainketa egiteko kontu korronte zenbakia):

E	S																		
---	---	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

HORRELA, NIRE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DUT:

- Dirulaguntzaren deialdian adierazitako baldintzak betetzen ditudala.
- Hemen adierazitako datuak eta aurkeztutako dokumentazioa egiazkoak direla.
- Dirulaguntza Orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikulua 2. eta 3. apartatuen eta 34.5 artikuluan xedaturikoaren arabera ez nagoela sartuta dirulaguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.



ARANTZA

Egiaztapen-aseguru kodea: 7CAA AAUF H7EH WU4Z 2ZAM

2026 URTEKO BORTZIRIETAKO IGERILEKUETAKO BONOAK ORDAINTEZKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA - SEFYCU 380055

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.arantza.eus/> 6tik 5 orrialdea



SINATZAILEA
EGINBIDEA konstatzeko deialdi honen oinarriak
Arantzako Udalaren 2026ko irailaren 10eko osoko
bilkura akordio bidez onetsiak izan direla.
IDAZKARIA, Nagore Madariaga Iriarte
2026/09/11



ARANTZAKO
UDALA

NIF: P3102200G

KIROLA ETA GAZTERIA

Espedientea 339951E

- Eskabide honekin batera baimena ematen dudala Arantzako Udalari behar den informazio guztia biltzera, hemen xedatutakoa eta aurkeztutakoa egiaztatzeko. Hori guztia Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan adierazitakoaren arabera.
- Helburu bererako bertze erakunde publiko nahiz pribaturi dirulaguntza eskaerari dagokionez (markatu dagokiona):
 - ☐ Ez dudala bertze erakunde publiko nahiz pribaturi dirulaguntza eskaerarik egin.
 - ☐ Bertze erakunde publiko nahiz pribaturi dirulaguntza eskaera hau egin dudala:

ERAKUNDEA	ZENBATEKOA	EGOERA (Ebatzi gabea, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratuta)

Arantzan, 2026ko (a)ren, (e)an.

SINADURA



ARANTZA

Egiaztapen-aseguru kodea: 7CAA AAUF H7EH WU4Z 2ZAM

2026 URTEKO BORTZIRIETAKO IGERILEKUETAKO BONOAK ORDAINTZEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA - SEFYCU 380055

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.arantza.eus/> 6tik 6 orrialdea